

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Esan bezala, gure produktuaren promozioa egiteko interneten plataforma erabiliko dugu, gaur egun honek duen indarrak baliatuz. Honetaz gain, egoitzetara eta ospitaleetara bidaliko ditugu propagandak.

Bai interneteko webgunean eta bai propagandan, gure enpresako telefono zenbakia eta mugikorreko zenbakia jarriko dugu, bezeroek gurekin kontaktatu nahi izanez gero, hauen bidez egiteko. Bertan gure produktuak eta prezioak jarriko ditugu. Eta gure produktu sinpleenari ezarri ahal dizkiogun aukera batzuk ere idatziko ditugu. Honen bidez behar gehiago dituztenek ere aukerak izango dute ohea pertsonalizatzeko.

Gure lehen bezeroak edo bezero garrantzitsuenak ospitaleak eta egoitzak izanik, propaganda horrelako tokitara bidaliko dugu. Webgunea ordea, denen eskura egongo da. Bezero batek gure oheetako bat nahi duena esanez gero, gure produktua sortu ondoren, guk geuk eramango genion etxera, ospitalera edo eta egoitzara, gure enpresako furgoneten bidez.